

Matsorriko ahotsak 25 urte bete ditu

Testua: Nerea Reparaz

Taldearen jaiotzan, 1987an hain zuzen ere, Garaizarko Lagunak izena eman zitzaion. Bost urte pasa eta gero, kide berriak biltzearekin batera izena aldatu eta gaur egun ezagutzen dugun Garaizako Matsorriak abesbatza jaio zen. Urteak pasa ahala, kideak etorri eta kideak joan, taldeak kaleko espirtua eta hasierako esentzia gordetzen jarraitzen du. 25 urte hauetan, asko ikasi dute eta haien ahotsak findu egin dira, gaur egun ezagutzen den Garaizarko Matsorriak abesbatza osatu den arte. Denbora pasa moduan, hasi zen proiektuak dimensio handiagoak hartu ditu denborarekin, eta dagoeneko Bilboko izkina gehienetan izan dira euren ahotsaz elizak eta eszenatokiak musikaz bustitzen.

Ehunka dira abesbatzako 36 kideek kontatzeko dituzten istorio eta anekdotak. Haien hitzen

bitartez, Bilbo zaharrera egiten dugu jauzi, egun ia ahaztuta dauden milaka kontakizun gogora ekarriaz. 25 urte hauen ostean, guztiz animatuta eta pilak kargatuta ageri dira abesbatzako 36 gizonak. Astean bitan elkartzen dira Birjinetxe ikastetxean entseatzeko, eta erantzukizun handiz hartzen dute guztiak. Urte honetarako prestatzen dabilta dagoeneko errepertorio berria eta guztiak eta haietako bakoitzak ilusio handiz hartu dute martxan den proiektu hau. Azaroaren 18an hasi zuten Begoñako basilikan urteurrena ospatzeko lehenengo ekitaldia, Santa Zezilia ospakizuna hain zuzen ere, eta hurrengoari ilusio



handiz itxaroten diote dagoeneko. Sustrai bilbotarrak hasieran bezala gori-gori mantentzen badituzte ere, ikuspegia zabaldu eta atzerrira bota dute begirada. Datorren urterako Euskal Herria utzi eta bidaia batean murgilduko dira 36 gizonak Miren Zubieta zuzendariarekin bertako kultura kanpoaldean ere zabaltzeko. Lehenengo aldiz izango da 25 urte hauetan Garaizarko abesbatzak mailetak hartu eta entzule berrien aurrean arituko dela.

Ekitaldiz betetako 2011-2012ko agenda honetan Gabonetarako plana ere antolatzen diraute dagoeneko. 25. urteurrena gabon giroan ospatzeko asmotan bilantzikoekin berotuko dute giroa Begoñako elizan. Urte guztian zehar ospatuko diren ekitaldien hasiera baino ez da izango.

Abesti guztiak kideak izandakoen eta gaur egun direnen memorian diraute, baina entzule-

Santa Agedako abestiekin jaio zen Garaizarko Matsorriak abesbatza duela 25 urte. Herriko espirtu abeslariak bildu zituen kideak makilak hartu eta kalez kale Euskal Herriko abestiak plazaratzera.



ekin urteurrena modu berezian ospatzeko asmotan, CD bat kaleratu zuen abesbatzak lehen aldiz bere historian. Modu honetan euren publikoa zabaltea lortu dutela uste dute eta bide batez diru iturri gisa funtzionatzen du ideiak. Diskoak 16 abesti bildu ditu guztira, haien artean habanerak, euskal kantuak eta Bilbainadak daude entzungai. Txistuaren soinuaren laguntza izan dute 36 ahotsek diskoko zenbait kantutan, Leioako txistularien kontserbatorioaren laguntzari esker.

Teknologia berrietara egokitzea garrantzitsua dela uste dute, batez ere, koruaren esentzia gertutik ezagutzeko aukera ematen duelako. Sortu duten blog berriaren bidez, abestietatik hasi eta kideen izeneta-raino ezagutzeko aukera ematen dute. Komunikazioa erraztu egin dela sentitzen dute matsorriek, eta pauso handi bat suposatzen duela abesbatzaren historian.

36 gizonetako ahotzen atzetik Miren Zubieta zuzendariak indar eta ekimen handiz ekiten dio bokazioz bustiriko lanari. Korutik pasatu diren zuzendari bakoitzak bere adreilua jarri du gaur egun oinarri sendotan eraikiriko Begoñako abesbatzan. Taldea zuzendariarekin zein zuzendaria taldearekin etxean bezala sentitzen dira eta emakumezko batek gizonetako talde bat zuzentzeak diziplina areagotzen duela adierazten dute abeslariak haien arteko konfiantza giroan sumatzen delarik.

Giro paregabea antzematen da koruko kideen bilera orotan, irribarreak eta txantxak nonahi entzun daitezke, baina guztiaren gainetik ilusio handiz martxan jarritako proiektuarekiko seriotasuna eta gogo nabari da euren begietan. Mende laurden honetan, gainontzeko urteetan bezala Garaizarko Matsorriak abesbatzak Begoñara lotutako sustriak tinkotu ditu, jaiotzen ikusi zuen tokiari beti ere omen eginez.



Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz Instalador Autorizado

*Obras, mantenimientos y reparaciones instalaciones
 *Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
 *Porteros automáticos y videoporteros
 *Aire acondicionado

Juan de Gascuña nº9 Local 4004 Bilbao Fax:944111652-944111653

Kafe

Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9 - 48006 BILBAO
 Telf. 94 411 99 33

Bizkaia Irratia

musika kultura bertulak

92.5	Urdarras
96.7	Euzko Abesbatza
97.4	Bermeo Bako
97.5	Gernika Zorrotza Durango Elorri
98.1	Lekeio
F.M. 102.6	